EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Udaltzaingoak elkarte bati arreta gaztelaniaz eman izanari buruzkoa

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko azaroaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako Gau Beltza antolatu duen Bizarrain elkarteko ordezkariek jakinarazi diote EH Bildu udal taldeari gaztelania hutsez egin behar izan zituztela jarduera horretarako udaltzainekin aurrez aurreko eta telefono bidezko harremanak, agenteek ez baitzuen euskaraz aritzeko biderik eskaini, elkarteko kideek euskaraz egin arren udaltzainei.

Batzordean zinegotzi ordezkariak erantzun zuen Udaltzaingoak bermatzen duela herritarrekiko harremana euskaraz izatea. Edonola, gertatutakoa zuritzeko, adierazi zuen zerbitzuan duela urte asko ari diren agente batzuk ez daudela gaituta; ez zuen adierazi, ordea, Altzako bulegoan edo telefono arretan dauden agenteak horietakoren batzuk direnik.

Edonola, birritan aipatu zuen elkarteko kideek ez zutela adierazi harremana euskaraz izatea nahi zutenik. Baieztapen hori Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzako irizpideen aurkakoa da. Honako hau zehazten du herritarrekiko harremanari buruz:

> *2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak. Aurrez aurre edo telefonoz udalera euskaraz jotzen duen herritarrari euskaraz erantzungo zaio.*

Beraz, Udaltzaingoko agenteek ez zuten bete jarraibideak adierazten duena, baina batzordean, ez dakigu ezjakintasunez edo interesatuki, zinegotziak adierazi zuen ez zutela zerbitzua euskaraz eskaini herritarrak ez zuelako horrela eskatu. Hau da, arauak dioena gainditzen duen baldintza bat gehitu zuen zinegotziak, herritarraren bizkar utzirik berak aukeratutako hizkuntzan ez jaso izana zerbitzua, eta hori ez da bidezkoa.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala betetzea Udalean euskararen erabilera normalizatzeko jarraibideek ezartzen dutena pertsona fisikoekiko eta herritarrekiko ahozko harremanei buruz.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zaindu dezala ez gertatzea hizkuntza eskubideen urraketarik Udaltzaingoak herritarrekin dituen harremanetan, eta horretarako, egin ditzala laneko eginkizunen antolakuntzan beharrezkoak diren moldaketak.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari harremanetan jar dadila hizkuntza eskubideen urraketa pairatu duen erakundearekin zuzenean azalpenak emateko.

Donostia, 2021eko azaroaren 19an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia